

Bi blog berri sortu ditu Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak

2014/05/13

Mondragon Unibertsitako Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak bi blog berri jarri ditu sarean: **Berrimet eta EKOMU izeneko blogak**. Bitakora horiek lotuta daude fakultateak eskaintzen dituen bi unibertsitate masterrekin, hurrenez hurren, "Berrikuntza Didaktiko metodologiko proiektuen gestioa hezkuntza erakundeetan" masterrarekin eta "Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan" masterrarekin.

- **Berrimet bloga:** Blog horretan lanean ari dira Berrikuntza Didaktiko metodologiko proiektuen gestioa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterreko irakasleak. Bultzatzaileen esanetan, "gaur egungo hezkuntzak dituen erronkei erantzun egokiak eraikitzen lagungarriak izan daitezkeen esperientziak, gogoetak eta baliabideak argitaratzeko eta partekatzeko gogoeta eta ardura bultzatu gaitu bloga sortzera". Astero-astero, artikulua berriak jarriko dituzte sarean. Hizkuntzari dagokionez, bi hizkuntzetan elikatuko dute bloga, euskara eta gaztelera.
- **EKOMU:** MUko Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan unibertsitate masterretik bultzatutako blogaren xedea da "eleaniztasunaz eta kulturartekotasunaz gogoeta egitea eta eskolak gai horien inguruan dituen erronkei erantzuteko testuingurua eskaintzea". Blogaren atzean daude Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko lau ikerketa talde eta Ekomu masterreko irakasleak. Gaiaren arabera, artikulua argitaratuko dira euskaraz, gaztelera edo ingelesez.

Hezkuntzari buruzko bi blog horiek gehitu dira Mondragon Unibertsitateak duen blog komunitate handira. Komunitate horretan biltzen dira jakintza arlo desberdinetako blogak, esaterako, ingeniariak, administrazioa, komunikazioa eta hezkuntza esparrukoak.

Berrimet eta EKOMU blogez gain, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak baditu beste bi blog indarrean, bata komunikazioarekin lotutakoa eta, bestea, bi berriak bezala, hezkuntzarekin:

- **Atabala.** Komunikazio departamentuko bloga.
- **Hazitegi.** Haur Hezkuntza ikertegiaren bloga.

